

# BESTELAKO XEDAPENAK

## LEHENDAKARITZA

# 797

*5/2021 DEKRETUA, otsailaren 9koa, lehendakariarena, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluko kideen kargu-uzteak formalizatu eta izendapenak xedatzen dituena.*

Ekainaren 22ko 15/2017 Dekretuaren bidez, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua osatzen duten pertsonen izendapena xedatu zen, I+Dko inbertsio pribatuko enpresa traktoreen sektoreen ordezkari gisa.

XII. legegintzaldia hasita, eta enpresa-sektoreko eragileek RIS3 estrategiaren hedapena eza-gutu ahal izateko eta estrategia hori beren ekarpenekin eta ikuspegi pluralarekin aberasteko, kargu-uzteak formalizatzeari eta izendapenak xedatzeari ekin zaio.

Ondorioz, hau

### XEDATZEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluko kideak kargutik kentzea, I+Dn inbertsio pribatua egiten duten sektore eta enpresen ordezkari gisa, eta egindako ekarpen eta lankidetzak eskertzea:

José Luis Unda Malcorra jauna, Sener Ingeniería y Sistemas SAren zuzendari nagusia.

Rosa María García García andrea, Siemens-Gamesa Renewable Energy-ko presidentea.

Francisco José Riberas Mera jauna, Gestampeko presidente eta kontseilari delegatua.

Iñigo Uncín Azcue jauna, Mondragon Korporazioko presidentea.

Bigarren artikulua.– Honako hauek izendatzea Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluko kide, I+Gn inbertsio pribatua egiten duten sektore eta enpresen ordezkari gisa:

Mikel Barandiarán Landín jauna, Global Access-eko kontseilari delegatua.

Alexander Artetxe Panera jauna, Artech Taldeko presidente eta kontseilari delegatua.

Pello Rodríguez Zabaleta jauna, Danobatgroup-en zuzendari nagusia.

Francisco Quintanilla Guerra jauna, Faes Farma-ren zuzendari nagusia.

### AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko otsailaren 9an.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.